

## Arrasateko kooperatibak, nazionalismoa eta ezberdinkeria: hurbilketa bat



1. irudia. Fagor Electrónicaako langileak 1969an.

## AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. IDAZLEARI BURUZ: SHARRYN KASMIR	3
3. ARRASATEKO KOOPERATIBAK	3
4. ARRASATEKO KOOPERATIBISMOAREN BILAKAERA	5
5. KOOPERATIBAK, NAZIONALISMOA ETA LANGILE MUGIMENDUA	6
6. KOOPERATIBAK ETA INTERNAZIONALIZAZIOA	8
7. ONDORIOAK	9
8. BIBLIOGRAFIA	11

---

### 1. SARRERA

Lan honen helburua Arrasateko kooperatibekin, eta haien bitartez, kooperatibismoarekin lotutako auzi batzuk mahaigaineratzea da. Horretarako lehendabizi kooperatibak zer diren eta Arrasateko mugimendu kooperatibistaren bilakaeraren nondik norakoak azalduko dira. Esan beharra dago, kooperatiben egitura eta lan prozesuari buruzko datuak emango badira ere, lan honek ez duela Arrasateko kooperatiben ezaugarri tekniko eta aldaketa historiko guztiak azaltzeko ez asmo ez nahirik; halako helburu batek, gainera, urtetako ikerketa eskatuko luke. Horren ordez, kooperatiben dimentsio soziala, nagusiki, nazionalismoarekin duten lotura eta langile klasearengan duten eragina jorratuko dira.

Sharryn Kasmirrek 90. hamarkadan Arrasaten egindako landa lanaren fruitu den *El mito de Mondragón: cooperativas, política y clase trabajadora en una ciudad del País Vasco* (1999) liburua zein idazle berberak 2016an gaia gaurkotuz argitaratutako artikulua bat izan dira informazio iturri nagusiak. Kasmirrek bere obran sindikalgintzari emandako garrantzia ikusirik, lanaren amaieran bere kritika sindikalgintza berritzeko beste proposamen batekin uztartuko da.

## 2. IDAZLEARI BURUZ: SHARRYN KASMIR

Sharryn Kasmir kultur antropologoa da, gaur egun, Hofstra unibertsitatean ematen ditu klaseak. Bere ekarpen nagusiak lanaren antropologiaren esparruan egin ditu, eta berak idatzitako *El mito de Mondragón: cooperativas, política y clase trabajadora en una ciudad del País Vasco* liburua, gazteleraz 1999an argitaratua, oraindik erreferentzia bat da kooperatibei buruzko ikerketei dagokionez. Kasmirren obra beste askoren lanengandik bereizi zuena berak kooperatibak langileen ikuspegitik aztertu zituela da. Hego Euskal Herritik kanpo, antropologo hau Estatu Batuen hegoaldean ere landa lana egindakoa da.

*El mito de Mondragón: cooperativas, política y clase trabajadora en una ciudad del País Vasco* liburuan Sharryn Kasmirrek aitortzen du “kooperatibismoaren mitoak” erakarrita joan zela Arrasatera bere ikerketa egitera, uste baitzuen enpresa eredu honek bidezkoago egiten zuela kapitalismoa (1999:219). Lan honetan kooperatibismoaren mitoaren atzean dauden klase interesak azaleratzen ditu: Kooperatiben presidente nahiz pertsonal-buruekin hitz egin ezker, kooperatibak gatazka sozialik gabeko lekuak ziren, jabetzak langileak enpresarekin

identifikatzea eragiten zuen, eta kooperatiben egitura demokratikoa zen. Kasmirrek, ordea, langile klasearen ikuspegitik egin zuen ikerketa; ikuspegi horrek, hain zuzen ere, ezeztatzen du kooperatibismoaren mitoa (1999:219).

## 3. ARRASATEKO KOOPERATIBAK

Kooperatibak enpresa mota bereziak dira; sozietate anonimo batekin duten alde nagusia da kooperatiba batean jabetza enpresa osatzen duten bazkideena dela, eta ez akziodunena. Berez, enpresaren irabazi nahiz galerak berdin berdin banatzen dira bazkide guztien artean, eta kooperatibak kudeaketa organo bereziak dituzte, langile guztien parte hartzea ahalbidetzen dutenak. Berdintasuna eta demokrazia, arrazoï hauengatik, sarritan kooperatibekin lotzen diren printzipioak dira. Errealitatean, ordea, kooperatibak oso era ezberdinetan antolatzen dira, eta langileek enpresaren jabetzaren parte badute ere (kooperatiba guztietan jabetza ez da berdin banatzen), honek ez du esan nahi erabakietan kide guztiek pisu berbera dutenik (hau kooperatiba bakoitzaren antolaketa araberakoa da). Kooperatiba bakoitzak soldata baxueneko eta altueneko bazkideen arteko proportzio bat ezartzen du<sup>1</sup>.

Jose Maria Arizmendiarieta abadeari aitortzen zaio Arrasateko mugimendu kooperatibistaren bultzatzaile nagusia izatea. 1947-1955 artean enpresa eredu berriei buruz teorizatzen egon zen, zegoena baino eredu demokratiko eta partehartzaileago baten bila (Larrañaga, 2021; Retegui, 2021). Bere proiektuak martxan jartzeko aukera izan zuen, besteak beste, EAJrekin eta erregimen frankistarekin zuen harreman ona zela eta (Reyes Arteaga, 2005).

---

<sup>1</sup> Informazio hau Alianza Cooperativa Internacional eta Gedesco konpainiaren orrialdetatik ateratakoa da.

Arrasateko enpresa kooperatiboen lehen eredia 1956an sortutako ULGOR izan zen, butanozko estufak ekoizten zituena. Beranduago kooperatiba arrakastatsuen, FAGOR, sortu zen, zeinak gaur egun 80.000 langile baino gehiago dituen munduko leku ezberdinetan sakabanatuak. Gaurko egunez, Mondragón Corporación, enpresa ezberdinak biltzen dituen, munduko kooperatiba handiena da (Azumendi, 2019). Hasieran enpresa bakarra zena azkenean instituzio ezberdinek osatutako sare bilakatu zen: langileak hezteko Eskola Profesional bat (gaur Mondragon Unibertsitatea), LagunAro (gizarte-babesa ematen zuen instituzio bat), San José kontsumo kooperatiba (beranduago, beste kontsumo kooperatibekin batu eta EROSKI bilakatuko zena), Caja Laboral Popular bankua (beranduago Caja Laboral) etab. Denborarekin kooperatiba ezberdinen zentralizazioa eman da, Grupo cooperativo Mondragón, gero Mondragón Corporación Cooperativa eta azkenekoz MONDRAGON izeneko enpresa multinazionala osatu arte (MONDRAGON, 2021).

MONDRAGON kooperatibetan bazkide baten soldata baxuena altuena baino 7 aldiz txikiagoa izan daiteke (Espainian 127:1 da postu altueneko exekutiboen eta langileen arteko soldata proportzioa, batez beste). Enpresek “finantza bazkideek” eduki ditzazketen akzio kopurua mugatzen du, enpresaren jabetza bazkideen (langile nahiz managerrena) eskuetan mantendu dadin (T.F., 2013). Kasmirren arabera kooperatiben baitako egitura demokratiko formalek ez dute langileen benetako parte hartzea bermatzen, besteak beste, egiturazkoak diren denbora falta eta erabaki organoen berezko gabeziak direla eta (2016:46) .

27/1999ko uztailaren 16ko Kooperatiben legeak kooperatiba eta langileen arteko harremana bazkide harreman bezala ezaugarritu zuen, eta ez lan harreman gisa. Honen ondorioz, luzaroan bazkide langileek ez dute sindikatzeko eskubiderik eduki. 2017an Entzutegi Nazionalak sententzia bat atera zuen, deklaratu CNT sindikatuak Kataluinako kooperatiba batean izandako jarduna legez kanpo zegoela. Auzitegi Gorenak, ordea, sententzia hau zuzendu zuen 2019an, esanez “ez ezagutzen ezinezkoa den errealitate bat” dagoela, hots, kooperatibetako langileek kooperatibaren zuzendaritzari subordinatua dagoen lana egiten dutela, eta bazkide harremanetik haratago dijoazen interes laboralak izan ditzazketela. Horretaz gain, aipaturiko Kataluinako kooperatibak CNTri kalte ordainetan 30.000 € ordaindu behar zizkiola agindu zuten, egindako mehatxu eta difamazio publikoagatik (Iberley, 2019).

#### *4. ARRASATEKO KOOPERATIBISMOAREN BILAKAERA*

1973-1975 artean munduko leku industrial guztietan irabazi tasaren murrizketa bat eman zen. IIMGtik aurrera nagusitutako fordismoa, lan finkoak eta familia bat mantentzeko soldatekin lotzen zena, gainbeheran zegoen. Neoliberalismoarekin batera flexibilitatea bilakatu zen antolakuntza industrialaren printzipio nagusi (Harvey, 1989; hemendik hartua: Kasmir, 1999). Flexibilitate laborala, bi hitzetan, lan merkatuaren desregulazioa da, lan indarra merkantzia nahi bezala erabiltzea ahalbidetzen duena. Lan merkatuaren desregulazioaren ondorio dira aldi baterako lan kontratuak, jornada partzialak etab. (Fortún, 2020).

Diktadurak eragindako espainiar ekonomiaren aislazio erlatiboak krisiaren eragina zertxobait berandutu bazuen ere, 1975etik aurrerako irekierak eta Europan integrazioak posizio oso zaurgarrian utzi zuen. Estatu osoan, Euskadin barne, deskapitalizazioa eman zen, lantegi asko itxi ziren<sup>2</sup>, eta langabezia ugartu. LABen txosten bate arabera, 1976 eta 1991 artean ia 113.000 lanpostu galdu ziren industrian, eta beste 60.000 nekazaritza eta arrantzan. Aldi berean, sindikatuek Moncloako ituna sinatu zuten, lan merkatuaren berregituraketarako atea irekiz (Kasmir, 1999:201).

Krisia atzerapenarekin ailegatu zen kooperatibetara: 80. hamarkada arte etziren hasi haren eragina sufritzen. Honi aurka egiteko kooperatiben zuzendaritzak kooperatiben egiturazko erreforma bat abiatu zuten. Ordura arte independente izandako kooperatibak saretu egin ziren eta kudeaketa organo zentralizatuak sortu ziren, eta kapital erreserbetara bideratutako diru kopurua handitu zen (Kasmir, 1999:202). 1991an eman zen kooperatiben erreforma sakonena, egitura korporatibo berri baten sorrerarekin (Mondragón Corporación Cooperativa). MCCk entitate berri bat sortu zuen, MCC Inversiones S.A. izenekoa, zeinak etorkizun batean nahi zuenak kooperatiben akzioak erostea ahalbidetu zuen (ordura arte bazkideak soilik zire enpresaren jabeak eta kapitala lan indarrari lotua zegoen). 90. hamarkada hasieran, MCC Inversiones enpresa pribatuak erosten hasi zen, baina, iraganarekin hautsiz, etzituen kooperatiba bilakatu (Kasmir, 1999:204). Aurrerago ikusiko dugun bezala, azken hamarkadetan joera hau indartzen joan da.

Egiturazko aldaketak ematen ari zirela, kooperatiben baitako lan prozesua bera ere aldatua izaten hasi zen, produktibitatea areagotzeko: lantegi askotan txandak jarri ziren, gauez ere, makinak etzitezen sekula gelditu, eta eskariari egokitutako ekoizpena ezarri zen (aurrez adostutako lanaldiarekin bukatuz), oporrak murriztu ziren, indize salariala areagotzen saiatu ziren; langile bakoitzaren produktibitatea neurtzen hasi ziren, haien mugimendu oro kontrolatuz, *Método de Medición de Tiempos* (MMT) bidez<sup>3</sup> ... Langileak txanda ezberdinetan egoteak eragin handia izan zuen Arrasateko bizitza sozialean, *poteo* tradizionala ezbaian jarritz. Aisialdiaren aurkako eraso hau, zeinak Kasmirrek euskal kultura eta identitatearen aurkako eraso gisa azaltzen duen<sup>4</sup>, antolakuntzarako oztopo ere bazen, langileak gero eta sakabanatuago, indibidualizatuago, baitzeuden (Kasmir, 1999:205-206).

Kooperatibak enpresa pribatuen aldean oasis moduko bat izan zirela eta direla uste dutenen aurka, Kasmirrek bertako langile baten hitzak dakartza gogora: *“las cooperativas no se diferencian de las empresas capitalistas. Si acaso, están más perfeccionadas, pues los trabajadores están desprotegidos”* (Kasmir, 1999:209). Errepresentazio sindikalik gabe,

---

<sup>2</sup> Aipagarria da, adibidez, Euskalduna lantegiaren itxiera eragozteko 1977ko greba.

<sup>3</sup> MMT sistemak ekoizpenean egin beharreko mugimenduak zehazten ditu, langileak behartuz haien gorpuzak era oso kontrolatuan erabiltzera, ez denborarik galtzeko. Langileen produktibitatea era numerikoan neurtzen duenez, beharrezko langile kopurua era zehatzago batean jakitea ahalbidetzen du, eta eskariari egokituta ekoizten. MMT sistemak, beraz, flexibilitate laborala eta enpresek ahalik eta langile gutxien kontratatzea ahalbidetu zuen (Kasmir, 1999:212).

<sup>4</sup> Izan ere, Kasmirrek seinatzen du berak egindako elkarrizketetan bizitza sozialaren murrizketa, tabernei lotua, gizartearen europeizazioa gisa ikusten zela, zentzu txarrean (desiragarria ez zen europeizazio bat) (1999:206).

lantegi ezberdinen artean langileak transferitzeko gaitasunarekin eta haien langileen %30a aldi baterako lanaldian edukitzeko gaitasun legalarekin, Kasmirrek esaten du posible dela kooperatibek eskualdeko flexibilitate laboral handiena edukitzea.

##### 5. KOOPERATIBAK, NAZIONALISMOA ETA LANGILE MUGIMENDUA

Haien sorreratik, kooperatibak euskal nazionalismoarekin lotuak egon dira. EAJko kideak askotan kooperatiben zuzendaritzan egondakoak dira, eta Eusko Jaurlaritzak kooperatiben mesederako neurriak hartu izan ditu, besteak beste Ikerlan institutuaren sorrera eta 1993ko Euskadiko Kooperatiben Legea (Kasmir, 1999:195). Kapitalismoaren baitan klase borroka neutralizatzeko proiektu izaki, kooperatibek bat egiten zuten EAJren sozialismoaren aurkako ideologiarekin (Kasmir, 1999:194).

Kasmirrek egindako ikerketaren arabera, nazionalismo erradikala ere kooperatibekin zegoen lotua, nahiz ez EAJren kasuan bezainbeste: Kooperatibetako langileen artean (zehazki erdi edo behe mailako zuzendari lanpostuetan) gehiago ziren Herri Batasunako militanteak enpresa pribatuetan baino (1999:196).

Nazionalismo erradikalak (batez ere, ETAk) nazionalismoaren eta politika sozialaren arteko harremana birdefinitu zuen. 70. hamarkadan mugimendu nazionalistak garapen handia izan zuen, eta Herri Batasuna alderdia, LAB sindikatua eta KAS (Koordinadora Abertzale Sozialista) antolakundea sortu ziren, besteak beste. Desadostasunak sakonak baziren ere, euskal nazionalismoaren baitako talde ezberdinek bat egin ohi zuten kooperatiben auzian, besteak beste, baliabide nazional garrantzitsuak izan zitezkeela pentsatzen zelako, kapitala Euskal Herritik ateratzea eragozten zuten eta (Kasmir, 1999:195). Kasmirrek seinalatu bezala, nazionalismo erradikalaren printzipioek ez zuten kooperatiben izaerarekin bat egiten; kontraesan hau bereziki nabarmena zen LAB sindikatuaren kasuan, zeinak, berez, langileen interesak defendatu behar zituen. Kontua ez da nazionalismo erradikalak pentsatzen zuela bertako bertako kapitalistak kanpotarrak baino samurragoak zirela, baizik eta kooperatibek nazionalismoaren oinarri ekonomikoa sendotzen zutela.

1985an LAB kooperatibismoa kritikatzeko hasi zen, seinalatuz kapitalismoarekin amaitzeko ezgai zirela, eta bertan “sistema kapitalistaren gaitzak erreproduzitzen direla”<sup>5</sup> (1999:197). Hala ere, ezker abertzalearekin lotutako Egin aldizkariak kooperatibak laudoriatzen jarraitu zuen. Ezker abertzalearen eta eskuin nazionalismoaren arteko harremana gaiztotu arte, LABen kritikak plano erretorikoan geratu ziren (1999:198).

Gaiztotze hori 1988an eman zen, Euskal Herriko alderdi politiko garrantzitsu guztiek, Herri Batasunak izan ezik, Ajuria Eneako ituna izenekoa firmatu zutenean, ETAREN jarduna gaitzetsiz. EAJk inoiz baino gehiago alendu zuen bere burua ETAREngandik, eta HBren

---

<sup>5</sup> “*se continúa reproduciendo las lacras del sistema capitalista*”(1999:197).

aurkako kanpaina politiko gogor<sup>6</sup> bat jarri zuen abian. Aldi berean, EAJ PSOerekin aliatu zen, EAJren izarea espainolistari buruzko kritikak hauspotuz. Testuinguru honetan, ezker abertzaleak eskuin nazionalismoarekiko posizioa aldatu zuen, etsai politiko gisa izendatuz. Aldi berean, mundu mailako krisi ekonomikoak eta haren aitzakipean kooperatiben sistemak sufritutako aldaketek gero eta lan baldintza okerragoetara kondenatzen zituzten bertako langileak (Kasmir, 1999:200).

Mundu mailako krisiaren, etengabe okertzen ari ziren lan baldintzen eta nazionaliste arteko gero eta desadostasun handiagoaren testuinguruan, LAB kooperatibak publikoki kritikatzeko hasi zen, beste talde batzuk<sup>7</sup> baino era neurtuagoan izan bazen ere. Besteak beste, LABek, Talde Cooperativista izeneko taldearen bitartez (LABek berak sortua 1992an), kooperatibetako langileak ez sindikatuak egoteak zituen ondorioak seinalatzen hasi zen (Kasmir, 1999:215). Nazionalismo, kooperatiba eta langile mugimenduaren arteko lotura, ez da, hala ere, orain arte esandakoarekin agortzen.

90. hamarkadarako Arrasateko nazionalismo erradikalaren eta langile mugimenduaren arteko harremana oso deseginda zegoen. Horren seinale da Kasmirrek aipatzen duen 1990ko metalaren greba, era periodikoan egiten dena Gipuzkoan, helburu konkretu batzuk lortzeaz haratago langile klasearen elkartasuna erakusteko asmoa baitu (1999:189). 1990an, ordea, elkartasun honetan hutsune nabarmenak geratu ziren agerian, kooperatibetako langile bakar bat ere ez baitzen joan, ohikoa zen bezala, grebara<sup>8</sup>. Nazionalismo erradikalak langileak Koordinadora Abertzale Sozialista (KAS) nahiz Herri Batasunaren ekitaldietara joatea espero zuten arren, ezker abertzalearekin lotutako sektorea (hein handi batean kooperatibetako langile eta komertzio txikien jabeek osatua) etzen manifestaziora azaldu. Kasmirrek LABeko sindikalista bat aipatzen du, zeinak adierazten zuen Arrasate lehen Hernani bezalako zela (non langile mugimendua eta nazionalismo erradikala biziak ziren), baino kooperatibek aldatu egin zutelako (1999:192).

## 6. KOOPERATIBAK ETA INTERNAZIONALIZAZIOA

Kasmirren Arrasateko kooperatibei buruzko lan etnografikoa estrategia korporatibo internazionala martxan jarri baino lehen egin zen. 90. hamarkadatik aurrera aldaketak eman dira Arrasaten; besteak beste, lehen Mondragon Corporación Cooperativa zena orain MONDRAGON da. Kasmirrek bere lehen ikerketan identifikatutako joera batzuk sendotu egin

---

<sup>6</sup> EAJren ofentsiba ez zen plano diskurtsiboan geratu: propaganda ezkertiar eta iraultzailez betetako kaleak eragozteko, kartelak kolarekin itsastea debekatu zuten, eta kartelak itsasi zitezkeen eremuak mugatu (1999:199).

<sup>7</sup> Aipagarria da 1982an sortutako Kooperatibisten Taldea (KT), kooperatibetako langile talde txiki batek osatua. *Kooperatibisten Taldeak* izeneko aldizkari bat argitaratzen zuten, non gogor salatzen zituzten kooperatibetako lan baldintzak. Kide batzuk EMK (Euskadiko Mugimendu Komunista) edo LKirekin (Liga Komunista Iraultzailea) zeuden lotuak (Kasmir, 1999:210).

<sup>8</sup> Nahiz eta probintziako soldata ituna ez kooperatibetako langileei ezarri, eragin zuzena du harengan, eta historikoki ohikoa izan zen kooperatibetako langileak ere manifestazioetara joatea.

dira: MONDRAGON taldeak gaur egun dituen enpresen erdia baino ez da gaur egun kooperatiboa, eta langileen herena baino ez da bazkidea (2016:55).

Arrasateko kooperatiben internazionalizazioak hiru langile motatan bereizitako sistema bati eman zioten bide: Bazkideak Euskadin, aldi baterako langileak estatu espainiarren eta Euskal Herrian, eta soldatapeko langileak atzerrian. Hiru langile mota hauen arteko aldeak handiak dira, ondorengo adibideak erakusten duen bezala: 2013an Fagor Electrodomésticos enpresak porrota deklaratu zuen, eta plantilla murriztu ondoren, 5,600 langile geratu ziren. Horietatik 1,900 inguru Fagorreko bazkideak ziren, 200 aldi baterako kontratuak zituzten euskal herritarrak, eta 3,500 soldatapeko langileak atzerrian. Azken hauek enpresaz aldatu edo garaiz aurretik jubilatzeke aukera izan zuten Fagorren porrota eman zenean, baino besteek berriz ez (Kasmir, 2016:54-55).

Atzerriko langileak, normalean, herrialde txiroetakoak izaten dira, non soldatak baxuak diren. Anjel Errasti ekonomilariak MONDRAGONen atzerriko 11 lantegi subsidiario ikertu zituen: Txinako Kunshaneko langileek, adibidez, 1.5 € irabazten dituzte orduko, Euskal Herritarrek, 21 €. Kunshaneko lantegietan ohikoa da langileek 11 orduko lanaldiak edukitzea, astean sei egunez. Errastiren ikerketaren arabera, ez dago alde nabarmenik ohiko enpresa multinazionalen eta MONDRAGON taldeak langileak tratatzen dituen moduan. 2016an 100 lantegi baino gehiago zituen Arrasateko korporazio honek atzerrian, zeinetan 12,000 langile inguruk egiten zuten lan (Kasmir, 2016:55).

Herrialde txiroetako langileen esplotazioak onurak dakartza kooperatibetako bazkide diren euskal langileentzako: atzerrian lantegiak dituzten enpresek bi aldiz langile gehiago dituzte Euskal Herrian besteak baino; honen eragina bereziki nabaritu zen 2008ko krisiarekin, zeinak askok gutxiago kolpatu zuen Arrasate, hein batean, kooperatibak direla eta. Bertako langileen lan baldintza onak, beraz, beste leku bateko langileen lan baldintza kaskar eta ziurgabeetan oinarritzen dira (ez dugu ahaztu behar, dena dela, bertako langile asko ere aldi baterako kontratuekin daudela, Euskal Herriko langile guztiak ez baitira bazkideak).

Askok kooperatiben bilakaera hau kooperatibismoaren porrot gisa interpretatu dute, esanez enpresa pribatu bilakatzen direla pixkanaka. Kasmirrek, ordea, gogorarazten digu kooperatibek langileen arteko ezberdinkeria sortzen zutela plantilla globalizatu baino lehen ere. 90. hamarkadan ere kooperatibetako langileek parte hartze txikiagoa zuten sozialismoa eta independentzia bilatzen zuten Euskal Herriko langile mugimenduan (2016:57).

Estrategia internazional honek, bazkideen oniritziz aukeratutakoak, kapitalismoaren baitan ohikoa den zapalkuntzaren auzira garama. Kasmirrek esaten duen bezala: “Egoera ezagun baten permutazio konplikatu batekin topatzen gara, non langileen estratu baten pribilegioa beste estratu baten esplotazioaren mendekoa den. Kapitalaren akumulazioaren historia, ondo



dakigun bezala, ezberdintasun eta ezberdinkerien sorreraren historia da (leku batetik bestera, generoaren araberakoa, arraziala, trebetasunaren arabera etab.<sup>9</sup>)” (2016:56).

## 7. ONDORIOAK

Arrasateko enpresen bilakaera, lan prozesuaren antolaketan emandako aldaketak, nahiz lantegi subsidiario internazionalen sorrera, lehia kapitalistak behartutako neurriak dira. Euskal Herrian kooperatibek langile bazkide nahiz ez bazkideen lan baldintzak era sistematiko eta jarraituan okertu dituzte, eta haien internazionalizazioak dinamika hori internazionalki erreproduzitu du. Enpresa pribatuekin alderatuz, langileek arazo berberak dituzte batean zein bestean (Kasmir, 1999:221 eta 2016:56-58).

Kooperatibetan emandako aldaketak justifikatzeko esan izan da aldaketa hauek ezinbestekoak direla kooperatibismoaren biziraupenerako. Beste batzuk, ordea, kooperatibismoa bultzatu zuten idealen gainbehera ikusten dute produktibitatea areagotzeko sistemetan eta zuzendaritzaren soldata ezberdintasunak areagotzeko etengabeko saiakeretan (Kasmir, 1999:221).

Kasmirrek, ordea, hirugarren interpretazio bat egiten du: Kooperatibismoak ez du bere iraganarekin hautsi, 70. hamarkadatik aurrera emandako aldaketek kooperatiben funtzio originala berrestu baino ez dute egiten (1999:221). Kooperatibismoa, hain zuzen ere, EAJren politika anti-sozialistaren produktu izan zen bere sorreratik, sozialismoaren alternatiba gisa pentsatua, langile mugimendua neutralizatzeko bitartekoa. Ondorioz, ezin dugu esan adulterazio bat eman denik: hasieratik proiektu erreformista zenak erreformismo izaten jarraitzen du (Kasmir, 1999:222).

Kooperatibek *de facto* langile mugimendua apaltzeko funtzioa bete izan dute eta betetzen dute. Kooperatibismoak, eta orokorrean, zuzendaritza eta langileen arteko aliantzak, langileen pasitibitatea sustatzen du; egoera honek zuzendaritzari botere handiagoa ematen dio, langileen kalterako. Kasmirren landa lanaren ondorioa da kooperatibismoak apatia sortzen duela, eta langileek sarritan ez dituztela berez enpresaren baitan dagozkien eskubide demokratikoak erabiltzen (hau ordea, interes falta baino denbora libre falta, sindikatuen babes falta eta balizko organo demokratikoen gabezia estrukturalekin azaldu daiteke) (1999:223). 2016an argitaratutako artikulu batean, Kasmirrek azaltzen du bazkide ziren langileei MONDRAGON taldearen atzerriko langileen egoera kaskarri buruz galdetzean haien diskurtsoak *manager* kutsu bat hartzen zuela, lehiaren presioekiko amore emate bat; printzipio kooperatiboen degenerazioa nahitaezkoa balitz bezala azalduz (2016:57). Zuzendaritzak mende bukaeran lan

---

<sup>9</sup> “Hence, we are confronted with a complicated permutation of a familiar state of affairs whereby the privilege of one strata of workers depends upon the exploitation of another. The history of capital accumulation, as we know well, is the history of the making of difference and inequality (across space, racial, gender, skill, etc.)” (2016:56).

baldintzak okertzeko efikaziaren aitzakia erabili zuen bezala, gaur egun ere diskurtso berak kooperatiben dimentsio politiko eta ideologikoa ezkutatzeko balio du, instituzio zeharo pragmatikoak balira bezala eginez (Kasmir, 1999:229).

Gerora egindako ikerketak Kasmirren kooperatiben inguruko lehen ikerketaren ondorioak berresten ditu: kooperatibek langile klaseak erreformatzeko balio dezakete. Txandakako lanaren ezartzeak, adibidez, langileen arteko asoziazio modu nagusia jarri zuen arriskuan, hots, egunero tabernetan biltzea (1999:224). Adibide hau, ordea, lanaren flexibilizazioarekin lotutako lan prozesuaren aldaketak ezartzen dituen edozein enpresari egotzi daskioke, kooperatiba izan ala ez. Kooperatibek langile klasearengan duten eraginak, ordea, baditu berezitasunak:

Kooperatibek klase identitatean eragiten dute, ohikoagoa izanik kooperatibetako langileek haien burua klase ertainekotzat jotzea enpresa pribatuetako langileek baino. Honen arrazoi nagusia kooperatibetan langileek enpresaren jabetzan parte hartzen dutela dela adierazten du Kasmirrek, nahiz eta seinatzen duen jabetza eta klase identitatearen arteko harremana konplexua dela eta kooperatibetako langileek ez dutela enpresa bere gisa ikusten. Jabetza baino jabetzaren eta kooperatibismoaren atzean dauden ideologiak dira klase identitatean eragina dutenak (1999:224).

Kooperatiben beste bereizgarri bat nazionalismoarekin duten harreman estua da. 1974ko Ulgorreko greban, adibidez, kooperatiben zuzendaritzek leialtasuna eskatzen zieten langileei, espainolista izendatuz harekin bat egiten zuen oro. Nazioaren auzia, euskalduntasunarena, langile klasea manipulatzeko erabili zen, haren kalterako (Kasmir, 1999:227-228 or.).

Era batera edo bestera, hau da, nazionalismoak edo zuzendaritzaren diskurtso teknokratak eraginda, azken emaitza berbera da: kooperatibek langile klasea zatitzeko funtzioa betetzen dute. Hau oso nabarmena izan zen mende bukaeran, non kooperatibetako langileak, lan merkatuan aldaketa sakonak ezartzen ari ziren arren, etzuten garaiko langile borroketan parte hartu. Hain zen agerikoa kooperatibetako langileen eta langile klasearen beste sektoreen arteko bereizketa, bai ETAk bai eliza katolikoak hari buruz idatzi zutela, kezkatuta. Kooperatiben barruan, kooperatibismoaren ideologiak zuzendaritzaren alde egiten duten eta egiten ez duten langileen arteko bereizketa ere sustatzen du (1999:226-227).

Langile klasearen baitan beti izan dira aldeak, sexuak, jatorriak nahiz kualifikazioak eragindakoak, adibidez. Kooperatibekin, langile klasea bereizteko beste modu bat sortu zen, ekoizpen bitartekoen jabetzari lotua.

*El mito de Mondragón: cooperativas, política y clase trabajadora en una ciudad del País Vasco* (1999) liburuaren ondorioetan Sharryn Kasmirrek politika egitearen beharra eta antolakuntza politikoaren garrantzia azpimarratzen ditu. Horretaz gain, sindikatuak aldatu egin behar direla esaten du, egoera ezberdinetan dauden langileak barnebiltzeko (langile tenporalak, jornada partzialak dituztenak, haien enpresen jabetzaren zatitxo bat dutenak...) (228-229 or.).

Kasmir ez da autore bakarra esaten beharrezkoa dela sindikalgintza gero eta atomizatuago dagoen langile klase heterogeneoa antolatzeke moldatu behar dela. Tithi Batthacharya historialari marxistak, adibidez, aldarrikatzen du sindikalgintza, eta orokorrean, langile borrokak, ez ditugula azken hamarkadetan egin diren interpretazio erredukzionista edo ekonomizistek jarraiki ulertu behar (2015).

Lanpostua, esplotazioa agerikoa den esparru den heinean, langileriaren antolakuntzarako eremu estrategikoa da; baino kapitalaren balorizazioen nukleo izanik, bertako langileen antolakuntza urte luzez izan da oztopatua (kooperatibena nahiz flexibilizazioa laboralarena honen adibideak dira). Hori horrela, Batthacharyak aldarrikatzen du lanpostutik kanpo ematen diren borroka asko (etxebizitzaren aldekoak, adibidez) ere klase borrokak direla, langile klasearen erreproduzio sozialerako ezinbesteko diren heinean (2015:19).

Sozialismoaren helburu den soldatapeko lanaren aboliziorako, lana eta kapitalaren arteko harremana lanpostutik kanpo ere erreproduzitzen dela ulertu behar da, eta beraz langile klasearen interesak bizitzaren beste esparruetan ere defendatu behar direla. Hau da, Batthacharyaren arabera, gizakion lan egiteko gaitasuna dagokion lekura itzultzeko era bakarra, geure buruarengana itzultzeko era bakarra, hain zuzen ere (Bhattacharya, 2015:20).

## 8. BIBLIOGRAFIA

Azumendi, Eduardo (2019). La cooperativa más grande del mundo demuestra su resistencia y fiabilidad. El Diario [On-line], eskuragarri hemen: [https://www.eldiario.es/euskadi/euskadi/pais-vasco-funciona-cooperativa-grande\\_1\\_1495462.html](https://www.eldiario.es/euskadi/euskadi/pais-vasco-funciona-cooperativa-grande_1_1495462.html) [Kontsulta eguna: 2021/05/20]

Bhattacharya, Tithi (2015). “How Not To Skip Class: Social Reproduction of Labor and the Global Working Class”. Viewpoint Magazine [On-line], eskuragarri hemen: <http://www.tithibhattacharya.net/social-reproduction-theory> [Kontsulta eguna: 2021/05/23]

Fortún, Manuel (2020). “Flexibilidad laboral”. Economipedia [On-line], eskuragarri hemen: <https://economipedia.com/definiciones/flexibilidad-laboral.html> [Kontsulta eguna: 2021/05/23]

Gedescos (Datarik gabe). “¿Qué es una cooperativa?”. Gedescos [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.gedescos.es/blog/que-es-una-cooperativa-y-como-funciona/> [Kontsulta eguna: 2021/05/19]

Kasmir, Sharryn (1999). *El mito de Mondragón*. Txalaparta. Laura Gonzalez Gonzalez (itzul.). Tafalla: Txalaparta.

Kasmir, Sharryn (2016). “The Mondragon Cooperatives and Global Capitalism: A Critical Analysis”. New Labour Forum Vol.25. New York: The Murphy Institute.

Iberley, (2019).El Tribunal Supremo corrige a la Audiencia Nacional: Los socios trabajadores de cooperativas de trabajo asociado tienen derecho de sindicación. Iberley [On-line], eskuragarri hemen:

<https://www.iberley.es/noticias/ts-corrige-audiencia-nacional-socios-trabajadores-cooperativas-trabajo-asociado-derecho-sindicacion-28567> [Kontsulta eguna: 2021/05/21]

International Co-operative Alliance (Datarik gabe). Qué es una cooperativa. [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.ica.coop/es/cooperativas/que-es-una-cooperativa> [Kontsulta eguna: 2021/05/19]

Larrañaga Lizarralde, Jesús (2021). *Arizmendiarieta Madariaga, José María*. Auñamendi Entziklopedia [on line], eskuragarri hemen: <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/arizmendiarieta-madariaga-jose-maria/ar-12750/> [Kontsulta eguna: 2021/05/23]

MONDRAGON (Datarik gabe). “Toda Nuestra Historia”. Corporación MONDRAGON [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.mondragon-corporation.com/historia/> [Kontsulta eguna: 2021/05/20]

Retegui, Javier (2021). “Arizmendiarieta, pasado y futuro”. Deia-Noticias de Gipuzkoa [On-line], eskuragarri hemen:

<https://www.deia.eus/opinion/2021/02/04/arizmendiarieta-pasado-futuro/1096790.html> [Kontsulta eguna: 2021/05/20]

Reyes Arteaga, Carmen (2005). “El franquista al que aman los abertzales”. Crónica-El Mundo [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.elmundo.es/cronica/2005/485/1107039604.html> [Kontsulta eguna: 2021/05/23]

T.F. (2013). “Fagor: así funciona el grupo cooperativo Mondragón”. Unidad Editorial Información Económica [On-line], eskuragarri hemen: <https://www.expansion.com/2013/10/18/enpresas/industria/1382130057.html> [Kontsulta eguna: 2021/05/21]

